

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUAREN ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ARTEKO HITZARMENA 2026-2027 IKASTURTEKO ESKAINTZA AKADEMIKOAN EUSKARA GIZARTEAN INDARBERRITZEKO ETA SUSTATZEKO HIZKUNTZA PLANGINTZAN ADITU TITULU BEREKIA TXERTATZEKO

BILDU DIRA

Alde batetik, Ana Olló Hualde andrea, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilaria, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 239/2023 Foru Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz.

Bestetik, Javier Goicoechea Fernández jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaskuntzen errektoreordea den aldetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren izenean eta haren ordeztasunarekin, Iruñean, Arrosadiko Campusean eta IFK Q-3150012-G duena. Errektoretza-taldearen egitura orokorra onartzen duen eta haren eginkizunak zehazten dituen ekainaren 20ko 1306/2023 Ebazpenak ematen dizkion eskumenak erabiliz jardun du.

Bi aldeek, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun eta ordezkartza nahikoa aitortzen diote elkarri, eta horretarako,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA. Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago, besteak beste, euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio programak gauzatzea eta

CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA-INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA, PARA LA IMPLANTACIÓN DEL TÍTULO PROPIO DE EXPERTO EN PLANIFICACIÓN LINGÜÍSTICA PARA LA REVITALIZACIÓN Y PROMOCIÓN SOCIAL DEL EUSKERA EN EL CURSO ACADÉMICO 2026-2027

REUNIDOS

De una parte, D.^a Ana Olló Hualde, Consejera del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra, en virtud de las competencias otorgadas por el Decreto Foral 239/2023, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra.

De otra parte, Don Javier Goicoechea Fernández, en calidad de Vicerrector de Enseñanzas de la Universidad Pública de Navarra, con sede en Pamplona, Campus de Arrosadia, y C.I.F. número Q-3150012-G, que actúa en este acto en nombre y representación de la misma en el ejercicio de las atribuciones que tiene conferidas por la Resolución nº 1306/2023, de 20 de junio, por la que se aprueba la estructura general del equipo rectoral y se determinan sus funciones.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad y representación suficiente para suscribir el presente convenio, a cuyo efecto,

EXPONEN

PRIMERO. Que el Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, le asigna a éste la función de realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como

helburu hori bera duten entitate publikoekin eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

BIGARRENA. Euskarabideak prestakuntza hau aurrera ateratzeko interesa du erakunde publikoek hizkuntza politikaren plangintzan prestakuntza tekniko egokia duten langileak behar dituztelako. Gainera, bizi dugun testuinguru eleaniztunean, erakundeek hizkuntza kudeaketa gero eta beharrezkoagoa dute eta kudeaketa horretan euskara aintzat hartzeko eta egoki lantzeko langile prestatuak behar direlako.

Prestakuntza behar horri erantzun egokia emateko, Euskarabideak Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUPi) prestakuntza-ekintza zehatza apailatzeko eskatu dio. Prestakuntza hori espezializatua, aitortua eta administrazioaren eskakizun teknikoetara egokitua egonen da.

TERCERO. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Goi Mailako Irakaskuntzako zerbitzu publikoaren eskumena duen erakundeak, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasketa Berekiak arautzen dituzten Arauen 1.2 artikulua "Titulu berekiak eta beste ikasketa-ziurtagiriak lortzera bideratutako Ikasketa Berekiak emateko" ahalmena esleitzen dio. Aipatu Arauak 2023ko apirilaren 25eko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu ziren (2023ko maiatzaren 11ko 99 zenbakidun NAO).

LAUGARRENA. NUP Fundazioa Nafarroako Unibertsitate Publikoak sortu zuen Gobernu Batzordearen 1996ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez, Unibertsitatearen eta Nafarroako Gizartearen arteko elkarrikeria sustatzeko eta lankidetzan bideratzeko; beraz NUPen Titulu Berekiak kudeatzeaz arduratzen den unibertsitatearen erakunde instrumentala eta bitarteko propioa da. NUP Fundazioa gizarte-intereseko pertsona juridiko-pribatua da, irabazi asmorik gabea. Haren helburuen artean, Unibertsitatearen eta enpresen arteko

colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

SEGUNDO. Euskarabidea tiene interés en desarrollar esta formación porque las instituciones públicas necesitan personal capacitado en la planificación de políticas lingüísticas. Además, en el contexto plurilingüe en el que vivimos, las organizaciones necesitan cada vez más una gestión lingüística, la cual requiere de personal formado para que el euskera sea tenido en cuenta y planificado adecuadamente.

Con el fin de dar adecuada respuesta a esta necesidad formativa, Euskarabidea ha solicitado a la Universidad Pública de Navarra (UPNA) la preparación de una acción formativa específica que cubra dichas necesidades, permitiendo una formación especializada, reconocible y adaptada a los requerimientos técnicos de la administración.

TERCERO. Que la Universidad Pública de Navarra, entidad destinataria de la competencia del servicio público de la Enseñanza Superior, tiene atribuida por el artículo 1.2 de las Normas Reguladoras de las Enseñanzas Propias de la Universidad Pública de Navarra, adoptadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 25 de abril de 2023 (BON nº 99, de 11 de mayo de 2023), la potestad de "impartir Enseñanzas Propias conducentes a la obtención de títulos propios y otros certificados académicos".

CUARTO. Que la Fundación UPNA fue creada por la Universidad Pública de Navarra mediante Acuerdo de la Junta de Gobierno de 20 de diciembre de 1996, con el objeto de fomentar el diálogo y canalizar la cooperación entre la Universidad y la Sociedad Navarra; y es, por lo tanto, es un ente instrumental y medio propio de la universidad encargado de gestionar las enseñanzas propias de la UPNA. La Fundación UPNA es una persona jurídico-privada de interés social, sin fin lucrativo alguno. En su objeto se encuentra el

harremanak sustatzea dago, ikasleak eta tituludunak trebatzeko programetan sartuz, bi taldeei etorkizunean lan munduan sartzen laguntzeko.

Fundazioaren helburuak lortzeko, Unibertsitateak agintzen dizkion kudeaketa-entzakoak beteko ditu, besteak beste, hezkuntza, kultura, zientzia, gizarte eta kirol arloetako, ikerketa sustatzeko, garapenerako lankidetzako eta antzeko beste arlo batzuetako edozein jarduera antolatzeko, kudeatzeko eta/edo burutzeko (Estatutuen 6. artikulua).

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, abenduaren 19ko 2748/2025 Ebazpenaren bidez, NUP Fundazioari, erakunde instrumental eta bitarteko propioari, Ikasketa Berekiak barne hartzen dituen Etengabeko Prestakuntza jarduera garatzeko agintzen dio.

BOSTGARRENA. Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duen lege esparrua, bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna ematen diena eta hitzarmenaren osagarri izan daitezkeen ekimenak garatzeko.

Jarduera ildo bateratuak ezarri eta garatzeko, eta alde biek egiten duten lana elkarren mesederako izateko, hitzarmen hau sinatzen da, klausula hauen arabera,

KLAUSULAK

LEHENA: XEDEA

fomento de las relaciones de la Universidad con la empresa, incorporando a ésta en sus programas para la formación de estudiantes y titulados/as, con el objetivo de facilitar a ambos colectivos su futura incorporación al mundo laboral.

Para la consecución de sus fines fundacionales realizará, entre otras funciones, la ejecución de los encargos de gestión que le encomiende la Universidad para la organización, gestión y/o realización de actividades de cualquier naturaleza en relación con las materias de carácter educativo, cultural, científico, social, deportivo, de fomento de la investigación, de cooperación al desarrollo y otros de naturaleza análoga (artículo 6 de los Estatutos).

La Universidad Pública de Navarra encarga a Fundación UPNA, ente instrumental y medio propio de ésta, a través de la resolución 2748/2025, de 19 de diciembre, el desarrollo de la actividad Formación Permanente que contempla las Enseñanzas Propias.

QUINTO. Que ambas partes, Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera y la Universidad Pública de Navarra, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

A los efectos de establecer y desarrollar unas líneas de actuación conjuntas y favorecer mutuamente el trabajo que cada una de las partes está realizando, se suscribe el presente convenio, de acuerdo con las siguientes,

CLÁUSULAS

PRIMERA: OBJETO

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko lankidetzaren arautzea, 2026-2027 ikasturterako Euskara gizartean indarberritzeko eta sustatzeko hizkuntza plangintzan Aditu Titulu Berekia, 15 ECTS kredituko irakaskuntza zama duena, ezartzeko.

BIGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldiak 2027ko abuztuaren 31 arte iraunen du. Nolanahi ere, egiteke leudeken konpromisoen likidaziorako zabaldu ahal izanen da, ala erantzukizuna eskatu ahal izanen da aldeek konpromiso horiek betetzen ez badituzte.

HIRUGARRENA: ALDERDIEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK

Euskarabideak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ikastaroak sortuko dituen gastuak estaltzen laguntzea, gehienez 17.000 € ordaintzeko konpromisoa hartzen duela.
- Zuzendarikidetzaren akademikoaren parte hartzea, Aditu Tituluaren ikastaroaren edukiak emanen dituzten irakasleak izendatzeko eta ikastaroko moduluen edukiak zehazteko.
- Ikastaroaren zuzendarikidetzaren akademikoaren parte izatea, NUPEk izendatutako kideekin batera.
- Matrikulatutako ikasle kopuru nahikoa lortzeko burutu beharreko zabalkundean aritzea, NUPEkin batera.

NUPEk, aldiz, konpromiso hauek hartzen ditu:

El presente convenio tiene por objeto regular la colaboración entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y la Universidad Pública de Navarra con el fin de implantar el Título Propio de Experto en Planificación Lingüística para la Revitalización y Promoción social del Euskera, para el curso académico 2026-2027, con una carga lectiva de 15 créditos ECTS.

SEGUNDA: DURACIÓN DEL CONVENIO

La vigencia del presente convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de agosto de 2027, sin perjuicio de su extensión a la liquidación de los compromisos pendientes o la exigencia de responsabilidad por falta de cumplimiento de los mismos entre las partes.

TERCERA: OBLIGACIONES ASUMIDAS POR LAS PARTES

Euskarabidea se compromete a:

- Contribuir económicamente con los gastos del curso, mediante el compromiso de pago de un máximo de 17.000 €.
- Formar parte de la codirección académica para la designación del profesorado que impartirá los contenidos del curso de Título Propio, así como de la determinación de los contenidos de los módulos del curso.
- Ostentar la codirección académica junto a personal designado por la UPNA.
- Colaborar con la UPNA en la difusión necesaria para conseguir un número suficiente de alumnado matriculado.

Por su parte la UPNA se compromete a:

- Irakaskuntza programa kodiseinatzea, garatzea, koordinatzea eta eduki zientifikoz hornitzea.
- Zuzendarikidetzak akademikoaren kide izatea, Aditu Tituluko ikastaroaren edukiak emanen dituzten irakasleak izendatzeko eta ikastaroko moduluen edukiak zehazteko.
- Ikastaroaren zuzendarikidetzak akademikoaren parte izatea, Euskarabideak izendatutako kideekin batera.
- 15 ECTS kredituri dagokien irakaskuntzazama burutzeko behar diren giza baliabideak programaren eskura jartzea, NUPeko barneko eta kanpoko langileen bitartez.
- Programa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren teknologiak programaren esku jartzea.
- Programaren kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa NUP Fundazioaren bidez egitea, Unibertsitatea – Gizartea Fundazioari 2026. urtean garatu behar dituen jardueren enkargua onartu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen abenduaren 19ko 2748/2025 Ebazpenaren arabera.
- Egindako jardueren eta horien emaitzen txosten tekniko-ekonomikoa aurkeztea fakturak aurkezteko datetan.
- Nafarroako Gobernuaren logotipoa sartuko du ikastaroaren publizitatean eta dokumentazioan, [Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala](#) eta haren erabilera arautzen dituen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritakoari lotuz eta
- Codiseñar, desarrollar, coordinar y dotar de contenido científico el programa docente.
- Formar parte de la codirección académica para la designación del profesorado que impartirá los contenidos del curso de Título Propio, así como de la determinación de los contenidos de los módulos del curso.
- Ostentar la codirección académica junto al personal designado por Euskarabidea.
- Poner a disposición del programa los medios humanos necesarios para la impartición de la carga docente correspondiente a 15 créditos ECTS, a cargo de personal interno y externo a la UPNA.
- Poner a disposición del programa las tecnologías necesarias para su correcto desarrollo.
- Realizar la gestión administrativa y económica del programa a través de la Fundación UPNA, en virtud de la Resolución nº 2748/2025, de 19 de diciembre, del Rector de la Universidad Pública de Navarra, por la que se aprueba el encargo a la Fundación Universidad - Sociedad de actividades que debe desarrollar durante el año 2026.
- Presentar un informe técnico-económico de las actividades realizadas y sus resultados en las fechas de presentación de las facturas.
- Incluir el logotipo del Gobierno de Navarra tanto en la publicidad como en la documentación del curso que pueda generarse. Se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula [el símbolo oficial del Gobierno de Navarra](#) y se

jarduera zabaltzen den bitartean mantenduko da.

mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

LAUGARRENA: EKARPEN EKONOMIKOA

4.1 Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak 17.000 euro jarriko ditu Euskara gizartean indarberritzeko eta sustatzeko hizkuntza plangintzan Aditu Titulua Berekia ezartzeko.

Kopuru honetatik 10.000 euro 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren B30002 B3200 4455 334105 "(E) Convenio UPNA. Formación en planificación lingüística para la promoción del euskera" (NUP hitzarmena. Euskara sustatzeko hizkuntza plangintzan formakuntza) izeneko diru-sailaren kargura ordainduko dira, eta gainerako 7.000 euroak, 2027ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako gaitzen den diru-sail baliokidearen kargura, azken hori kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean.

4.2 Zenbateko horretan sartzen dira hitzarmena sinatzen denetik 2027ko abuztuaren 31ra arte sortutako gastu hauek:

- Euskara gizartean indarberritzeko eta sustatzeko hizkuntza plangintzan Aditu titulua Berekiak eskatzen dituen lanetarako eta hitzarmen honetan jasotako jarduerak egiteko langileen gastuak.
- Barneko eta kanpoko irakasleen ordainsariak.
- Prestakuntza espezializaturako irakaskuntza-materialak (PowerPoint, ikus-entzunezko materialak, unitate didaktikoak, etab.).

CUARTA: APORTACIÓN ECONÓMICA

4.1 La aportación de Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera para la implementación del Título Propio de Experto en Planificación Lingüística para la Revitalización y Promoción social del Euskera asciende a un máximo de 17.000 euros.

De esta cantidad 10.000 euros se abonarán con cargo a la partida B30002 B3200 4455 334105, denominada "(E) Convenio UPNA. Formación en planificación lingüística para la promoción del euskera" de los Presupuestos Generales de Navarra para 2026, y los 7.000 euros restantes con cargo a la partida equivalente que a tales efectos se habilite en los Presupuestos Generales de Navarra para el ejercicio 2027, condicionado esto último a la existencia de crédito adecuado y suficiente.

4.2 Este importe incluye los siguientes gastos generados desde la firma del convenio hasta el 31 de agosto de 2027:

- Gastos de personal para la atención al Título Propio de Experto en Planificación lingüística para la revitalización y promoción social del euskera, así como de realización de las actividades señaladas en el presente Convenio.
- Honorarios del personal docente interno y externo.
- Materiales docentes para la formación especializada (PowerPoint, materiales audiovisuales, unidades didácticas, etc.).

- Webgunearen diseinua eta mantentze-lanak, publizitatea, marketina eta hedapen- eta publizitate-gastuak.
- Nirelkasgelategia plataformaren kudeaketa.
- Ikasleen aseguruak.
- Administrazio-gastuak (Ikasketa-Espedientea Hastea eta Ziurtagiria edo Titulua Ematea).
- Bankuko beste gastu batzuk.
- Ikastaroa kudeatzea eta antolatzea.
- Ikasketa Berekien Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema eta Kanona.
- Jarduerari dagozkion zeharkako gastuak, betiere legokiokeen neurrian.
- Ikastaroa behar bezala garatzeko beharrezkoa den beste edozein gastu.

4.3 Lehen ordainketa 10.000 eurokoa izanen da gehienez, 2026ko abenduaren 31 baino lehen, eta bigarrena, 2027ko abuztuaren 31 baino lehen, Titulu Berekia bukatu ondoren, betiere Nafarroako Unibertsitate Publikoak – NUP Fundazioak egindako gastuak justifikatu eta egindako lanaren memoria aurkeztu ostean.

Bi aldeek behar bezala jardun arren gutxieneko matrikula-kopurua lortuko ez balitz, NUPek administrazio-kudeaketako, materialak euskarri digitalera egokitzeko, publizitateko eta egindako gainerako jardueretako gastuak erreklamatu ahal izango lituzke, behar bezala justifikatuta.

- Diseño y mantenimiento de la web, publicidad, marketing y gastos de difusión y publicidad.
- Gestión de la plataforma MiAulario.
- Seguros del alumnado
- Gastos administrativos (Apertura de Expediente y Expedición de Título o Certificado).
- Otros gastos bancarios.
- Gestión y organización del curso.
- Sistema de Garantía Interna de Calidad de las Enseñanzas propias y Canon.
- Gastos indirectos que habrán de imputarse a la actividad en la parte que razonablemente corresponda.
- Cualquier otro gasto necesario para el correcto desarrollo del curso.

4.3 El primer abono será de un máximo de 10.000 €, antes del 31 de diciembre de 2026 y el segundo antes del 31 de agosto de 2027, una vez finalizada la impartición del Título Propio, en previa justificación, en ambos casos, por parte de la Universidad Pública de Navarra - Fundación UPNA de los gastos realizados y tras la entrega de la memoria del trabajo realizado.

En el caso que, pese al desempeño adecuado de ambas partes, no se lograra el número mínimo de matrículas, la UPNA podría reclamar, así justificados, los gastos de gestión administrativa, de adecuación de materiales a soporte digital, de

Aldi bakoitzaren zuriaketa NUP Fundazioak egingo du, aldi bakoitzean egindakoari buruzko txosten tekniko-ekonomiko xehatua aurkeztuz. Txosten horretan, egindako gastu guztien zerrenda zenbakitua jasoko da, eta gastu horiekin batera, sortutako ordainagiri eta faktura guztiak aurkeztuko dira, edo, halakorik ezean, frogagiriak.

publicidad y demás actividades realizadas.

La justificación de cada periodo se realizará por la Fundación UPNA presentando un informe técnico-económico detallado de lo realizado en cada periodo, en el que se incluirá una relación numerada de todos los gastos realizados, a los que deberán acompañar la totalidad de recibos y facturas generadas, o en su defecto, documentación justificativa.

BOSGARRENA: EKARPEN EKONOMIKOA

- 5.1 Hitzarmen honen xede den Titulu Berekiaren antolaketa eta kudeaketa ekonomiko eta administratiboa NUP Fundazioari dagokio.
- 5.2 Titulu Berekirako zuzendarikidetza akademiko bat eratuko da, NUPen izenean Alvaro Baraibar Etxeberriak eta Unai Belintxon Martinek osatua, eta Euskarabidearen izenean Javier Arakama Urtiaga eta Paula Kasares Corralesek osatua.
- 5.3 Titulua aurrera eramateko, gutxienez 17 pertsona matriculatu beharko dira, eta gehienez 25.
- 5.4 Prestakuntza online modalitate asinkronoan egingo da osorik.
- 5.5 Ikasleak onartzeko deialdia irekia izango da eta zuzendarikidetza akademikoko taldeak kudeatuko du, ezarritako epeen eta onartutako memoria akademikoan zehaztutako sarrera-baldintzen arabera. Memoria horretan ikastaroaren helburu

QUINTA: GESTIÓN ADMINISTRATIVA Y ORGANIZATIVA

- 5.1 La organización y gestión económica y administrativa del Título Propio objeto de este convenio corresponde a la Fundación UPNA.
- 5.2 Se constituirá una codirección académica para el Título Propio, compuesta por Álvaro Baraibar Etxeberria y Unai Belintxon Martín por parte de la UPNA y por Javier Arakama Urtiaga y Paula Kasares Corrales en representación de Euskarabidea.
- 5.3 El título requerirá de una matriculación mínima de 17 personas y máxima de 25.
- 5.4 La acción formativa se desarrollará al completo en modalidad online asíncrona.
- 5.5 La convocatoria para la admisión del alumnado será de carácter abierto y estará gestionada por el equipo de codirección académica, conforme a los plazos establecidos y a los requisitos de acceso definidos en la memoria

orokorrak eta espezifikoak, egitura eta ikasketa-plana, metodologia, ebaluazioa, egutegia eta bestelako zehaztapen teknikoak jasoko dira.

Ikastaroan sartzeko eta onartuak izateko lehentasun osoa izanen dute:

1. Nafarroako Foru Administrazio Publikoko langileek, NUPeko egresatuak direnak.
2. Nafarroako Foru Administrazio Publikoko langileek, NUPeko egresatuak ez direnak.
3. Nafarroako Toki Entitateetako langileek, NUPeko egresatuak direnak.
4. Nafarroako Toki Entitateetako langileek, NUPeko egresatuak ez direnak.

Eskabide horiek bete ondoren plaza librerik balego, tituluaren zuzendarikidetzak akademikoak ezartzen dituen onarpen-irizpideen arabera beteko lirarteke plaza horiek.

Matrikula egiteko, Nafarroan erroldatutako ikasleek, gehienez, 350 € ordainduko dituzte.

Nafarroan erroldatuta ez dauden ikasleek, gehienez, 550 € ordainduko dituzte matrikula egiteko.

SEIGARRENA: HITZARMENAREN EXEKUZIOAREN JARRAIPENA

- 6.1 Hitzarmenaren jarraipena egiteko Bitariko Batzordea sortuko da, hitzarmenean ezarritakoa behar bezala betetzen eta koordinatzen dela bermatzeko. Batzorde hori, gutxienez, urtean behin bilduko da, eta ezohiko bilerak egin ahal izango ditu

académica aprobada, que recogerá los objetivos generales y específicos, la estructura y el plan de estudios del curso, así como la metodología, evaluación, calendario y otras especificaciones técnicas.

Tendrá preferencia en el acceso y admisión al curso:

1. El personal empleado de la Administración Pública Foral de Navarra, egresados de la UPNA.
2. El personal empleado de la Administración Pública Foral de Navarra, no egresados de la UPNA.
3. El personal empleado de las Entidades Locales de Navarra, egresados de la UPNA.
4. El personal empleado de las Entidades Locales de Navarra, no egresados de la UPNA.

Si una vez cubiertas dichas solicitudes hubiera plazas disponibles, éstas se cubrirán según los criterios de admisión que establezca la codirección académica del título.

El alumnado empadronado en Navarra abonará un máximo de 350 € en concepto de matrícula.

El alumnado no empadronado en Navarra abonará un máximo 550 € en concepto de matrícula.

SEXTA: SEGUIMIENTO DE LA EJECUCIÓN DEL CONVENIO

- 6.1 Se creará una Comisión Mixta de seguimiento del convenio para asegurar la debida realización y coordinación de lo establecido en el mismo. Dicha Comisión se reunirá como mínimo una vez al año, pudiendo además reunirse

alderdi sinatzaileetako batek hala eskatzen duenean.

6.2 Batzordea honako hauek osatuko dute:

Euskarabidearen aldetik:

- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea, batzordearen lehendakaria izanen dena.
- Paula Kasares Corrales, idazkaria izango dena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aldetik:

- Alvaro Baraibar Etxeberria.
- Unai Belintxon Martín.

6.3 Batzorde hori, halaber, zaintza eta kontrol organotako eratzen da, eta Hitzarmena aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak konponduko ditu.

Horretarako, Batzordearen erabakiak adostasunez hartuko dira. Akordiorik lortzen ez bada, erabakiak gehiengoz hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

6.4 Deialdiak koordinatzea, gai-zerrenda prestatzea eta aktak artxibatzea Euskarabideari dagozkio.

Batzorde horren bileren edo unean uneko harremanen helburuen artean, hirugarren klausulan aldeek ezarritako konpromisoa betetzen dela egiaztatzea izanen da.

con carácter extraordinario siempre que así lo solicite una de las partes firmantes.

6.2 La citada comisión estará integrada:

Por parte de Euskarabidea:

- El Director Gerente de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera, que actuará como Presidente de la misma.
- Paula Kasares Corrales, que actuará como Secretaria.

Por parte de la Universidad Pública de Navarra:

- Alvaro Baraibar Etxeberria.
- Unai Belintxon Martín.

6.3 La citada Comisión se constituye asimismo, como órgano de vigilancia y control, y resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan derivarse de la aplicación del Convenio.

A estos efectos, los acuerdos de la citada Comisión serán adoptados por consenso. En caso de no conseguirse éste, los acuerdos se adoptarán por mayoría. En caso de empate, éste será resuelto por el voto de calidad del Presidente.

6.4 La coordinación de las convocatorias, el orden del día de las mismas, elaboración y archivo de actas, corresponderá a Euskarabidea.

Entre los objetivos de las reuniones de dicha comisión o de los contactos puntuales, procede destacar la verificación del cumplimiento de los compromisos fijados por las partes en la cláusula tercera.

ZAZPIGARRENA: DATUEN BABESA

Alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legeria betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren edo Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Eskuratzen diren datuak dokumentu honetan jasotako helburuetarako soilik erabiliko dira.

NUPEk Tratamenduaren Erantzunkide izaera hartzen du, DBEOren 26. artikulua arabera. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo datuen babesarekin lotutako beste eskubide batzuk gauzatzeko, interesdunek Datuak Babesteko Ordezkarirengana jo dezakete.

ZORTZIGARRENA: HITZARMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK ETA ONDORIOAK

Hitzarmen hau iraungitzeko arrazoiak dira:

- Aldeen arteko adostasuna, idatziz adierazita.
- Hitzarmenaren xede diren jarduerak garatzeko ezintasun materiala eta/edo gerora sortutakoak.
- Klausulak ez betetzea.
- Indarrean dagoen araudian aurreikusitako veste edozein arrazoiengatik.

Aipatutako arrazoiengatik hitzarmena suntsiarazten bada, bertan behera geratuko dira hitzarmenaren xede diren jarduerak.

SÉPTIMA: PROTECCIÓN DE DATOS

Cada una de las partes se compromete a cumplir con la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal, de acuerdo con el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 o Reglamento General de Protección de Datos (RGPD) y con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de Derechos Digitales (LOPD).

Los datos a que se da acceso no se utilizarán con ningún otro fin que el descrito en este documento.

La UPNA asume la condición de Corresponsable de Tratamiento, según el artículo 26 del RGPD. Los derechos de los interesados sobre acceso, rectificación, supresión u otros relativos a la protección de datos podrán ejercerse ante su Delegado de Protección de Datos.

OCTAVA: CAUSAS Y CONSECUENCIAS DE EXTINCIÓN

Son causas de extinción del presente convenio:

- El mutuo acuerdo de las partes instrumentalizado por escrito.
- La imposibilidad material y/o sobrevenida de desarrollar las actividades objeto del mismo.
- El incumplimiento manifiesto de sus cláusulas.
- Por cualquier otra causa prevista en la normativa vigente.

La resolución del convenio por las causas indicadas anteriormente, implicará la cesación de las actividades objeto del mismo.

BEDERATZIGARRENA: IZAERA JURIDIKOA ETA GATAZKAK KONPONTZEA

Lankidetzaz hitzarmen honek izaera administratiboa dauka.

Jarraipen-batzordeari dagokio hura aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea.

Hitzarmen hau betetzearen ondorioz sor daitezkeen edozein auzitarako, hitzarmena sinatzen duten alderdiak Iruñeko administrazioarekiko auzien jurisdikziopean daude, eta espresuki uko egiten diote egokitu daitezkeen beste edozein foruri.

Bere araubide juridikoa, lehenik eta behin, bere hizpaketek zehaztuko dute. Eta bertan aurreikusten ez den guztirako, 11/2019 Foru Legeari, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa, 40/2015 Legeari, urriaren 1ekoa, Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoarena, 13/2007 Foru Legeari, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa, eta horien ordezt ezartzen diren gainerako arauetara egokitu beharko da.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute, Iruñean, sinadura digitalaren egunean.,

NOVENA: NATURALEZA JURÍDICA Y RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS

El presente convenio de colaboración es de naturaleza administrativa.

Corresponde a su comisión de seguimiento la resolución de los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan derivarse de la aplicación del mismo.

Para cualquier litigio que pudiera surgir entre las partes por la aplicación del presente convenio, las partes suscribientes del mismo se someten expresamente a la jurisdicción del orden contencioso administrativo de Pamplona, con renuncia expresa a cualquier otro fuero que pudiera corresponderles.

Su régimen jurídico vendrá determinado en primer lugar por sus propias estipulaciones. Y en todo lo no previsto en él, deberá ajustarse en su tramitación y contenido a la Ley Foral 11/2019, de 11 de marzo, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y del Sector Público Institucional Foral, a la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, a la Ley Foral 13/2007, de 4 de abril, de la Hacienda Pública de Navarra y al resto de normas aplicables o las que se dicten en sustitución de todas ellas.

Y en prueba de conformidad de cuanto antecede, firman el presente convenio, en Pamplona, a la fecha de la firma digital,

MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO DEPARTAMENTUA / CONSEJERA DEL DEPARTAMENTO MEMORIA Y CONVIVENCIA, ACCIÓN EXTERIOR Y EUSKARA

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IRAKASKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA / EL VICERRECTOR DE ENSEÑANZAS DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA



Ana Ollo Hualde

Javier Goicoechea Fernández